



## HEZKUNTZA SAILA

Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de  
Universidades e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

**EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 10ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2022-2023 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetzak beka eskaeren ebazpena ematen du (B modalitatea).**

Hezkuntza sailburuak, 2022ko ekainaren 21eko aginduaren bitartez (uztailaren 11ko EHAAn argitaratua), unibertsitateko ikasleentzako Ikasiker lankidetzak beka deialdia egiten zuen 2022-2023 ikasturterako. Aginduaren oinarrien 2.2 artikulua beka B modalitatea jasotzen du: lankidetzak garatuko da udan, 2023ko ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.

Agindu horren 15.2 artikulua ezartzen duenez, B modalitatearen ebazpenak lau zerrenda izango ditu: eskabide esleipendunak, ez-esleipendunak, beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda (erreserbak) eta eskaeren zerrenda, lankidetzak-proiektua egiteko eskatzaileak hautatutako ikertaldeak edo ikerketa-zentroen arabera ordenatuta. Aipatutako erreserba-zerrenda ez da argitaratzen, baldintza horietan eskaerarik ez dagoelako.

Hautaketa-batzordeak, 2023ko urtarrilaren 9an, Ikasiker lankidetzak beka B modalitatean aurkeztutako eskaeren behin betiko ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

**EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.-** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena-zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 24.000 euro, B Modalitatean (I. Eranskina).

**Bigarrena.-** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei eta baldintzak bete arren, beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea, B Modalitatean (II. Eranskina)

**Hirugarrena.-** Ikertaldeak edo ikerketa-zentroen arabera ordenatutako zerrenda, eskaera adjudikaziodunak, ukatuak eta erreserbak jasotzen dituen argitaratzea (III. Eranskina).

**Laugarrena.-** Ebazpen honen kontra, gorako errekurtsioa jarri ahal izango du interesatuak, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari zuzenduta eta hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 10a.

Miren Artaraz Miñón

**UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA**